Maju, Sugaar edo Sugoi

Mariren senarra da Maju edo Sugaar edo Sugoi. Ostiralero egiten dio Mariri bisita, beti arratsaldeko ordu bietan, eta adatsa orrazten dio. Biek topo egiten dutenean, sekulako ekaitza sortzen dute.
Majuk ere itxura asko har ditzake; emaztearena berarena ere bai. Suge-itxura duenean, Sugaar (Suge ar) izena hartzen du. Suzkoa da sarri, eta orduan ez zaio ez bururik ez isatsik ikusten. Tximistargia dirudi, eta jendeak deabrutzat hartzen du. Sugearen itxura ez daramanean, gizonarena hartzen ere ba omen daki.
Berez, lurpean bizi da, eta azalera irteteko leize jakin batzuen zuloak erabili ohi ditu: Agamundako leizea eta Arratetako Sugaarzuloa Ataunen, Balerdi mendiko haitzuloa Aralarren... Baltzolako koban dagoenean, Sugoi izena hartzen du, eta laminen jauna da han. Suzko igitai edo ilargi-erdi itxuran zerua zeharkatzen duenean, ekaitza hurbil dagoen seinale.
Majuk eta Marik bi alaba izan omen zituzten; amari gelan laguntzen zioten. Eta bi seme ere bai: bata ona, Atarrabi, eta bestea gaiztoa, Mikelats.
Sugaar Mundakako printzesa batekin ibili omen zen, eta printzesak haur bat izan zuen, gero Bizkaiko lehen Jauna izango zena: Jaun Zuria.
Maju, Mariren senarra eta haren seme-alaben aita. Suge arra –Sugaar–, suzkoa batzuetan; laminen jabea –Sugoi–, beste batzuetan.

Maju es el esposo de Mari. Él la visita todos los viernes, a las dos de la tarde, y entonces le peina el cabello. Pero sus encuentros también pueden desencadenar tormentas espantosas.
Como Mari, Maju adopta varias formas. Puede tomar la misma apariencia que ella o presentarse como una culebra macho. Cuando ocurre esto, se le conoce con el nombre de Sugaar. Entonces es puro fuego y no se le ve ni la cabeza ni la cola; parece un rayo y la gente lo confunde con un diablo. Excepcionalmente puede mostrarse con forma humana.
Normalmente vive bajo tierra y se asoma a la superficie a través de ciertas cuevas: Agamunda y Arrateta en Ataun, Sugaarzulo de Balerdi en Aralar... Si habita en la sima de Balzola, toma el nombre de Sugoi y actúa como señor de las lamias. Y cuando cruza el cielo en forma de hoz de fuego o de media luna, es señal de que se acerca una tormenta.
Maju y Mari son padres de dos hijas, que acompañan a su madre en su aposento, y de dos hijos: uno benévolo, Atarrabi, y otro malvado, Mikelats.
Según la leyenda Sugaar también mantuvo relaciones con una princesa de Mundaka, que dio a luz a un niño, el que fuera señor de Bizkaia: Jaun Zuria.
Maju es el esposo de Mari y padre de sus hijos e hijas. Aparece como culebra macho –Sugaar–, a veces con forma de fuego, y otras veces como señor de las lamias –Sugoi–.